

“ZAINZA PANDEMIA GARAIA” ARGAZKI LEHIAKETA – BHUTAN 2020

OINARRIAK

Antolatzen du: Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Goizueta eta Aranoko Prebentzio eta Berdintasun batzordeak.

Xedea: Zaintzak eta tratu onak baloreen jartzea, pandemia garaian izan duten garrantziaren inguruko hausnarketa bultzatuz.

Lehiakideak: Nahi duen lagun orok har dezake parte, 15 urte baino gehiago izanez gero. Lehiakide bakoitzak gehienez bi argazki argitaragabeak aurkeztu ditzake.

Gaia: Konfinamenduak eta orokorrean pandemiak bizitzaren sostengurako oinarritzak eta beharrezkoak den hura argitara atera du. Zaintzaileen papera inoiz baino nabarmenagoa izan da eta kontziliazioa, tratu onak, erantzunkidetasuna, komunikazioa eta elkarbizitzaren garrantzia agerian geratu da.

Baloratzeko irizpideak:

Aurkeztutako lanak baloratzeko honako irizpide hauek jarraituko dira:

- 1.- Argazkiaren edukia eta honen harremana proposaturiko gaiarekin.
- 2.- Argazkiaren kalitatea.

Argazkien ezaugarri teknikoak:

- Formatu digitala: jpg.
- Zuri-beltzeko edo kolorezko argazkiak aurkeztu daitezke.
- Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkez ditzake.
- Aurkezten diren argazkiak jatorrizkoak eta argitaragabeak izango dira.
- Parte-hartzaileek erabateko ardura hartuko dute ziurtatzeko ez daudela hirugarrenen eskubiderik, ezta erreklamaziorik ere irudi-eskubideak direla eta.
- Pandemia garaian kokatuta egongo dira.
- Goizueta eta Aranoko kokatuta egongo dira.
- Antolatzaileek, planteatutako gaiarekin bat ez datozen eta kalitate teknikoko irizpide minimo batzuetara iristen ez diren lanak onartzeko eskubidea gordetzen dute.

Aurkezteko epea: 2020ko urriaren 22tik azaroaren 12ra.

Aurkezteko modua: argazkiak formatu digitalean bidaliko dira lagatratuonak@gmail.com helbidera ondorengo informazioa erantsiz:

Argazkilariaren datuak:

- Izen-abizenak.
- Adina.
- E-posta.
- Helbidea.

- Telefono zenbakia.

Argazkiaren datuak:

- Argazkiaren izenburua.
- Argazkiaren deskribapena.

Argazkien erakusketa eta jabetza:

- Egile bakar batek ezin izango du sari bat baino gehiago eskuratu.
- Sariak eman gabe gera daitezke epaimahaiak horrela erabakitzen badu.
- Aurkezten diren argazkiak ikusgai jarriko dira erakusketa moduan (lekua era eguna erabakitzeke).
- Parte hartzaileek argazkien erreprodukzio eskubideak Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esku utziko dituzte, erakusketa osatzeko helburuarekin eta sare sozialetan zabaltzeko aukerarekin. Mankomunitateak zaintzak balioan jartzeko helburuarekin erakusketa Goizueta eta Arano ez diren herrietan jartzeko aukera izango du. Egilearen izena bere argazkiarekin batera agertuko da argitaratuta.
- Behin ere ez dira beste eginkizun baterako erabiliko egileen baimena izan gabe.
- Epaimahaiaren erabakia: 2020ko azaroaren 20an jakinaraziko da. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta hedabideetan emanen da horren berri. Saritutako parte hartzaileei emaitza telefonoz jakinaraziko zaie. Epaimahaia: Honako kide hauek osatuko dute: Aranoko udaleko ordezkaria, Goizuetako udaleko ordezkaria, Prebentzio teknikaria, Berdintasun teknikaria, Goizuetako Jubilatu Elkartea eta Berdintasun Taldea.

Sariak: Ondorengoak izango dira:

- **Lehen saria:** Elgorriagako bainuetxean ibilbide termala + bazkaria + masajea (2 lagunentzat). Epaimahaiak erabakitzen duen argazki irabazlearen egilearentzako izango da.
- **Bigarren saria:** Elgorriagako bainuetxean ibilbide termala (2 lagunentzat). Parte hartzaileen artean zozketa bidez hautatuko da.

Sarien emanaldia: 2020ko azaroaren 30ean izanen da, Goizuetako Udaletxean.

Arauak onartu eta interpretatu: Lehiaketan esku hartzeak arauak onartzea dakar berez, baita epaimahaiak horien gainean hartuko dituen erabakiak ere.

Datuen Babesa: Abenduko 5eko 3/2018 Lege Organikoari betekizuna emateko, zeinak Datu Pertsonalen babesa eta eskubide digitalen bermatzea arautzen dituen, inprimaki honen bitartez helarazitako izaera pertsonaleko datuak berezko eskuduntzen gauzatzera baino ez direla bideratuko jakinarazten da, datu horiek Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko data basea osatzen duten fitxategietara atxikituko direlarik, jakinaraziz interesdunak bere sarrera, zuzentze, deusezte eta oposizio eskubideak gauzatzeko aukera dagoela.